

**Azaroak 29: Etxegabekoen Eguna 2015.**

# ETXE GABEKO PERTSONEKIN LAN EGITEN DUTEN ERAKUNDEEK HERRITAR GUZTIEN KONPROMISO PARTEKATUA PROPOSATU DUTE, ETXE GABEKO PERTSONARIK EGON EZ DADIN

**“Posible delako. Inor ez etxerik gabe. Pertsona guztiek etxebizitza edukitzea denon konpromisoa da”, 2015eko leloa egun honetarako.**


*BesteBi. 2015eko azaroaren 26a.-* Denok elkarrekin; administrazio, komunikabide, gizarte erakunde eta herritarrok konpromiso bateratu bat hartzen badugu, posible da pertsona guztiek etxea izatea. Hori da Etxe Gabekoen 2015eko egunaren harira prestatutako mezu eta jardueren helburua. Azaroaren 29an izango da eta hauxe da leloa: **“Posible delako. Inor ez etxerik gabe. Pertsona guztiek etxebizitza edukitzea denon konpromisoa da”**. Gaur, osteguna, 2015eko azaroak 26, eguerdiko 12:00etan 40 ekitaldi inguru burutuko dira Espainiar estatu osoan.

Egun honen harira, **BesteBi** plataforma (Etxegabeko pertsonen gizarteratzearen aldeko Bizkaiko Plataforma), **Caritas**, **FACIAM** (Marjinatuei arreta eta laguntza emateko Zentroetako Elkarten Federazioa), **fePsh** (Etxerik gabeko Pertsonen laguntzeko Erakundearen Federazioa) eta **XAPSL** (Xarxa d’atenció a Persones Sense Llar) erakundeek elkarrekin burutu dute aurten ere “Inor ez etxerik gabe” kanpaina. [\[IKUSI HEMEN KANPAINAKO MATERIAL GUZTIAK\]](#)

**Bost urte "etxegabetasuna" desagerrarazteko ekintzak burutzen eta proposamenak egiten**

Aurten sentsibilizazio ekintza global honen bosturtekoa bete da eta helburu nagusia da jendarte osoaren aurrean ideia hau argi uztea: posible da pertsona guztiek etxebizitza izatea, denon arteko konpromisoa lortuz gero (“Etxegabekoen” Kanpaina 2010-2015):

## **KANPAINA ETA EMAITZAK, URTEZ URTE:**



**2010: “INOR EZ ESKUBIDERIK GABE. INOR EZ ETXERIK GABE”.** Pobreziaren eta gizarte-bazterkeriaren aurkako borrokaren Europako Urtean, Gizarteratzearen aldeko Estatu Hitzarmena sortzeko koordinazioa eskatzen dugu.

*“Gizarteratzearen aldeko Estatu mailako Itunik” lortu gabe, Europaren gomendioak eta Kongresuaren eskakizunak kontuan izan dira, **Etxerik gabeko Pertsonentzako nazioarteko estrategia integral bat jarri da martxan eta espero dugu dagokion garapena izatea.***



**2011: "DENOK GARA HERRITARRAK. INOR EZ ETXERIK GABE»:** etxerik gabeko pertsonak, askotan agiririk ere ez dutenak, ezin dira gelditu gure Zuzenbide Estatutik kanpo. **Legeak eta arauak egiten direnean, muturreko gizarte-bazterkeria horren errealitatea jasotzea eskatzen dugu; horretarako, administrazioaren burokrasia eta agiri-eskaerak arindu behar dira.**

*Oraindik urrun gaude, izan ere, orain dela gutxi **Herritarren Segurtasun Legea** onartu da eta ez dira kontuan izan Hirugarren Sektoreak egindako eskakizunak, pobreziaaren kriminalizazioa saihesteko.*



**2012: "ESKUBIDEAK DIRA, EZ OPARIAK. INOR EZ ETXERIK GABE»:** eskatzen dugu gutxieneko diru-sarrerak pertsona ororen eskubide subjektibotzat hartu eta bermatzea.

*Gizarteratzeko gutxieneko errentak lortzeko baldintza batzuk gogortu egin dira eta ebazpenak luzatzen ari dira. Lurralde osoan babes arau batzuk ezarri behar dira, gutxiengo batzuk bermatuz.*



**2013: "INOR EZ OSASUNIK GABE. INOR EZ ETXERIK GABE".** Osasun Sistema Nazional ekitatiboa (unibertsala, doakoa eta eskuragarria) bermatzea eskatzen dugu. Guztientzat, bertakoentzat nahiz atzerritarrentzat, eta sentiberatasun berezia eskaini behar dio osasun mentalari.

*Eskubidearen titularraren ideia ordezkatu da; orain asegurutunarena da. Eskubidearen unibertsitaterako bidean atzera egin da, orain arte barne hartutako herritar batzuk espresuki kanpo utziz. - Europako Batzordeak ziurtatu du 2012ko erreformaren ondorioz handitu egin direla **itxaron-zerrendak eta erreklamazio kopurua**, osasun-arreta jasotzeko eskubidearen murrizketen inguruan.*



**2014: "ETXEBIZITZA DUIN ETA EGOKI BATEN ALDE. INOR EZ ETXERIK GABE»:** 2008tik hona egin izan dugun moduan, Espainiako Estatuari eskatzen diogu 1996an berrikusitako Europako Gizarte Gutuna berrets dezala. Bertan, 31. artikuluan, etxebizitza izateko eskubidea jasotzen da.

*Etxebizitza arloko larrialdi egoeran gaude oraindik, eta administrazio publikoak ez dira neurriak hartzen ari.*

*Ezinbestekoa da etxebizitza arloko politikak abian jartzea, **alokairu soziala sustatu eta eskubidea bermatzeko.***

• *Etxebizitza hutsen egoerari ez zaio oraindik aurre egin. Etxerik gabeko pertsonak eta pertsonarik gabeko etxeak, egoera onartezina.*

• *Espainiar estatuak oraindik ez du 1996an errebisatutako Europako Gizarte Gutuna sinatu.*



**2015: "Inor ez etxerik gabe posible dela"** berresten dugu, eta denon konpromisoa dela. **Politika sozial konprometituak behar ditugu: pertsonak ardatz hartuko dituztenak** (bereziki etxerik gabeko pertsonak) eta oinarrizko eskubideen **babes** eta bermearen alde egingo dutenak: osasuna, etxebizitza, gizarte babesa eta abar.

# EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN:

Etxegabetasuna desagerrarazteko 2010-2015 kanpainak ez du espero zen emaitzarik eman. **Gaur egun etxerik gabeko pertsonen kopurua bere horretan mantentzen da edo hazi ere egin da** eta demokrazian inoiz bizi izandako eskubide murrizketa handiena ikusten ari gara.

**Gizarte Zerbitzuen Legearen** helburua zerbitzu horiek erabiltzea eskubidetzat hartzea da, baina hori lortzeko orain arte emandako urratsetan ematen du jende gehiago ari dela geratzen kanpoan, barruan baino.

**Gizarte eskubideak** horixe dira, eskubideak; eta **ezin dira negoziatu. Etxerik gabeko pertsonak** bazterkeria egoeran dauden pertsonen artean **kalteberaenak dira, baita gutxien ikusten direnak ere.** Ekitaldi honen bidez egoera absurdu hau ikusarazi nahi dugu: administrazioen politikak burokratizatu egi daude eta modu autonomoan aurrera egitea lortzea ezinezkoa da.

Kaleko ekitaldian urte hauetako leloetako bakoitza **EAEko Gizarte Zerbitzuen Legean** zerrendatutako printzipio batekin edo batzuekin erlazionatu dugu. Izan ere, ulertzen dugu Euskadiko administrazioaren lanaren oinarria izan behar dela gizarte-bazterkeria egoeran dauden pertsonekin lan egiteko orduan. Pertsona horien artean, etxe gabeko pertsonetan zentratuko gara.

**2010 “Inor ez eskubiderik gabe, inor ez etxerik gabe” → Balorazio-tresna eta hori aplikatzearen emaitzak.**

Gizarte Zerbitzuen legearen arabera administrazioen arteko kooperazioa eta hirugarren sektorearekiko kooperazioa funtsezkoak dira Gizarte Zerbitzuen Sistemaren barruan. Era berean, Gizarte Zerbitzuen garapenean eta plangintzak herritarren parte-hartzea sustatzearen garrantzia aipatzen du.

**2011 “Denok gara herritarrak” → Udal zerbitzuak, kalitatezko dispositiboak eta jarraitutasuna.**

Gizarte zerbitzuen legearen printzipio nagusietako bat *Arreta pertsonalizatu eta integrala ematea* da. *Era berean, esaten du Gizarte Zerbitzuen euskal sistemak pertsona edo familia bakoitzaren beharrietara egokitutako arreta eman behar duela eta arretaren jarraitutasun eta osotasuna bermatu behar dituela.*

**2012 “ Eskubideak dira, ez opariak” → Gizarte zerbitzuak, eskubide subjektiboa.**

EAEko Gizarte Zerbitzuen legean *Berdintasuna eta ekitatea aipatzen dira; eta esaten da botere publikoek zerbitzu horiek egikaritzeko aukera bermatu behar dutela, berdintasuna aplikatuz, diskriminaziorik egin gabe.*

**2013 “Inor ez etxerik gabe, inor ez osasunik gabe” → Osasun arreta unibertsala jasotzeko eskubidea.**

Osasun arloko eskumen guztiak ez dira gizarte zerbitzuen legearen kontuak, baina Osakidetzaen arabera pertsona GUZTIEK edukiko dute bermatuta osasun-arreta autonomia erkidegoan, eta gizarte zerbitzuak UNIBERTSALAK dira.

**2014 “Etxebizitza duin eta egokiaren alde” → Etxebizitza eskubidea.**

Gizarte Zerbitzuen Legeak, bere printzipioen artean, honakoaz hitz egiten du: *Erantzukizun publikoa. Botere publikoek Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Zerbitzuen Katalogoan araututako zerbitzuen eskuragarritasuna eta sarbidea bermatuko dutela dio.*

# ZER ESKATZEN DUGU?:

---

## Administrazio Publikoei:

Bost urte hauetan egindako eskaerak inoiz baino beharrezkoagok dira. Gainera:

- **Politika sozialak behar ditugu berehala: pertsonak ardatz hartuko dituztenak (bereziki etxerik gabeko pertsonak) eta oinarrizko eskubideen babes eta bermearen alde egingo dutenak** (osasuna, etxebizitza, gizarte babesa eta abar).
- **Administrazioen konpromisoa ezinbestekoa da gizarte babes eta zerbitzuen arloko inbertsioa berreskuratzeko.**
- Eskatzen dugu **“Etxerik gabeko pertsonentzako Estrategia Nazional Integrala” ez dadila asmo hutsetan geratu, benetako garapen eta ezarpena izan ditzala.**

## Gizarte komunikabide eta sareei:

- **Etxerik gabeko pertsonenganako sentsibilitatearen ikuspuntutik** komunikatu dezatela, sentsazionalismoa eta estigmak alde batera utziz, bazterkeriaren fenomenoaren prozesu konplexu gisa ikusaraziz eta eskubideak kontuan harturik. **“Albiste onekiko”** eta konponbidearekiko **konpromisoan** sinesten dugu. #SonDerechosNoRegalos #NadieSinHogar

## Herritar guztiei eta gizarte osoari:

- Kanpainaren bost urte hauetako eskakizuna mantentzen dugu: • Barneratu dezagun ez daudela guretzako eskubideak eta “sobera dagoena” etxerik gabe bizi diren pertsonentzat. **Guztiok pertsonak gara eta, beraz, eskubide berberak ditugu.**
- Topaketarako begirada eta jarrera egokiak behar dira, aurreiritzirik gabe. **Gizarte erakunde eta mugimenduetan parte-hartze** handiagoa, gizarte-bazterkeria betikotzen duen gizarte-eredua aldatzeko.
- **Itxaropen eta aukerak mobilizatzeko eragile izatea.** Horrek esan nahi du salatzea, eskatzea eta bazterkeria egoera handiengan dauden pertsonen eskubideak aldarrikatzea, hau da, etxerik gabeko pertsonenak.



# MANIFESTUA:

---

***BOST URTEKO "INOR EZ ETXERIK GABE" KANPAINAREN ondoren, gizartearen, komunikabideen eta administrazioaren aurrean zera aldarrikatu nahi dugu:***

- ETXEBIZITZA pertsona guztiok maitasuna, laguntasuna eta segurtasuna aurkitzen dugun lekua da. Bizitzaren gainerako eremuetara sartzeko bidea ematen du; horregatik ez dugu ulertzen nola egon daitezkeen oraindik etxebizitza hutsak, pertsona asko kalean edo aterpeetan egonik: Etxebizitza sozialak lortzeko aukerak zabaldu eta hobetzeko eskatzen dugu.
- OSASUNA ez da negozioa, pertsona guztiok daukagun eskubidea da. Horregatik, osasun txartela ukatzen denean, eskubideak urratzen dira. Txartela daukaten baina kalean bizi diren pertsonetikiko aurreiritziak daude. Osasunaren eta etxebizitzaren arteko erlazioa zuzena da: Etxebizitzaren egoera hobetuta, osasuna hobetzen da. ETXEBIZITZA+ = OSASUN+
- LAN EGIN NAHI DUGU: Ez dugu diru-laguntzetatik bizi nahi. Gure egoeran dauden pertsonekin lotutako topiko eta estereotipoak hautsi nahi ditugu.
- ERROLDAREN bidez zeure burua ikusarazten duzu, "pertsona zara", baina udal askok ez gaituzte erroldan sartu nahi. Hala ere, erroldan egotea beharrezkoa da herritar gisa bizitzeko; gizarte zerbitzuak, osasun txartela eta abar lortzeko.
- Ez dugu ulertzen zergatik dauden horrenbesteko zailtasunak GUTXIENGO ERRENTAK jasotzeko, batez ere zentro batean edo bestelako gizarte baliabide batean bazaude. Ez badugu inolako diru-sarrerarik, nola egingo diogu aurre gure egoerari?
- PARTE-HARTZEA zerbaiten parte izatea da, balio bat da, ez lortu beharreko helburu bat. Parte hartzea eragozten diguten beldurrak ditugu, kalean bizi izandako egoera negatiboen ondorioz; horregatik nahi dugu gizarteko beste edozein pertsona bezala bizi.
- HARREMAN SOZIAL positiboak eduki nahi ditugu, bakardadea atzean uzten lagunduko diguten loturak sortu. Inor ez edukitzea dena galdua izatea da. Argi daukagu: EZ GARA INOR GAINERAKO PERTSONAK GABE.

**Posible da denok ETXEA izatea!**

**Herritar guztion KONPROMISOA da!**

**INOR EZ ETXERIK GABE!!!**



PERTSONA  
GUZTIEK  
ETXEA  
IZATEA  
GUZTION  
KONPROMISOA  
DA

POSIBLE DA. INOR EZ ETXERIK GABE

2015eko AZAROAREN 29a  
ETXERIK GABEKO PERTSONEN KANPAINA

Artxiboak eta:



Erakunde laguntzaileak:



**29 de noviembre: Día de las 'Personas Sin Hogar' 2015**

## **LAS ENTIDADES QUE TRABAJAN CON PERSONAS SIN HOGAR PROPONEN UN COMPROMISO COMÚN DE TODA LA CIUDADANÍA PARA QUE NADIE CAREZCA DE HOGAR**

**«Porque es posible. Nadie Sin Hogar. Que todas las personas tengan un hogar es un compromiso común», lema de la jornada de este 2015.**


*BesteBi. 26 de noviembre de 2015.* - Si todos juntos, desde las diferentes administraciones a los medios de comunicación, pasando por organizaciones sociales y la ciudadanía, alcanzamos un compromiso común es posible que todas las personas tengan un hogar. Este es el objetivo de los mensajes y actividades programadas para el Día de las Personas Sin Hogar 2015, que se celebra el 29 de noviembre bajo el lema **“Porque es posible. Nadie Sin Hogar. Que todas las personas tengan un hogar es un compromiso común”** y que hoy jueves 26 de noviembre de 2015, a las 12 del mediodía lleva a cabo unos 40 actos en todo el estado Español.

Con motivo de esta jornada, **BesteBi** (Plataforma por la Inclusión Social y a favor de las Personas Sin Hogar de Bizkaia), **Cáritas**, **FACIAM** (Federación de Asociaciones de Centros para la Integración y Ayuda de Marginados), la **fePsh** (Federación de Entidades de apoyo a las Personas Sin Hogar) y la **XAPSL** (Xarxa d'atenció a Persones Sense Llar), lanzan un año más en todo el país la Campaña “Nadie sin hogar”. [[VER AQUÍ TODOS LOS MATERIALES DE LA CAMPAÑA](#)]

### **Cinco años de acción y propuestas para acabar con el ‘sinhogarismo’**

Este año finaliza el quinquenio de esta acción global de sensibilización, con el objetivo de dejar patente ante la opinión pública que la posibilidad de que todas las personas tengan un hogar puede ser una realidad factible si se consigue ese compromiso común (Campaña ‘Personas Sin Hogar’ 2010-2015):

### **LA CAMPAÑA Y SUS RESULTADOS, AÑO A AÑO:**



**2010: «NADIE SIN DERECHOS. NADIE SIN HOGAR»** en el año Europeo de lucha contra la pobreza y la exclusión social **pedimos la coordinación y creación de un ‘Pacto de Estado por la Inclusión Social’.**

*Sin alcanzar un ‘Pacto de Estado por la inclusión social’, se ha atendido a las recomendaciones europeas y a instancias del Congreso, se ha comenzado el diseño de una **estrategia nacional integral para Personas sin Hogar**, que esperamos tenga el correspondiente y necesario desarrollo.*



**2011: «TODOS SOMOS CIUDADANOS. NADIE SIN HOGAR»:** las personas sin hogar, indocumentadas en muchos casos, no pueden quedar fuera de nuestro Estado de Derecho. **Pedimos que, en la creación de leyes y normas, se contemple esta realidad de la exclusión máxima social, disminuyendo la burocracia administrativa y las exigencias documentales.**

*Aún estamos lejos, ya que por ejemplo en Por otro lado, la reciente aprobación de la Ley de Seguridad Ciudadana no ha tenido en cuenta las peticiones del Tercer Sector encaminadas a evitar una deriva que conlleve la criminalización de la pobreza.*



**2012: «SON DERECHOS, NO REGALOS. NADIE SIN HOGAR»:** pedimos la creación de un sistema de ingresos mínimos garantizados como derecho subjetivo de toda persona.

*El acceso a las rentas mínimas de inserción se ha endurecido algunos requisitos para su acceso y se están prolongando en el tiempo las resoluciones. Es necesario un estándar de protección social en todo el territorio, que pudiera hacerse efectivo a través de un sistema de garantía de mínimos.*



**2013: «NADIE SIN SALUD. NADIE SIN HOGAR»** pedimos que se **garantice un ‘Sistema de Salud’ equitativo (universal, gratuito y accesible)** con extensión y calidad para todos, nacionales y extranjeros; y una especial sensibilidad en el ámbito de la Salud Mental.

*Se sustituye la idea de titularidad del derecho por la asegurado. Se retrocede en el camino a la universalidad del derecho, al excluir expresamente a colectivos hasta ahora incluidos. - La Comisión Europea asegura que las medidas impuestas con la reforma de 2012 han aumentado de las listas de espera y en el del número de reclamaciones relativas a las restricciones de acceso a la asistencia sanitaria.*



**2014: «POR UNA VIVIENDA DIGNA Y ADECUADA. NADIE SIN HOGAR»:** como venimos haciendo desde el año 2008, pedimos que el Estado español ratifique la ‘Carta Social Europea Revisada de 1996’, donde se incluye el derecho a la vivienda en el artículo 31.

*Seguimos viviendo una situación de emergencia residencial, que no está siendo afrontada ni cubierta por las administraciones públicas.*

- Continúa siendo imprescindible una política de vivienda que fomente el **alquiler social y garantice el derecho.**
- Se sigue sin afrontar la situación de las viviendas vacías. Personas sin hogar, y hogares sin personas, que resulta inadmisibles.
- El Estado español sigue **sin firmar la Carta Social Europea Revisada de 1996**



**2015:** afirmamos que **“Nadie Sin Hogar es posible”**, y que es un compromiso común. Para ello son necesarias **políticas sociales comprometidas que pongan a las personas en el centro** (en especial a las personas sin hogar) y apuesten por la **protección y garantía de acceso a derechos básicos:** salud, vivienda, protección social, etc.



# EN LA C. A. VASCA:

---

La campaña 2010-2015 años con el objetivo de erradicar el *sinhogarismo* no ha dado los frutos esperados. **Hoy en día hay tantas o más personas sin hogar** y estamos asistiendo a un momento de **recorte de derechos** sin precedente en la democracia.

La **Ley de Servicios Sociales** pretende convertir el acceso y disfrute de los servicios sociales en un **derecho**, pero, en los pasos que ha dado hasta el momento para perseguir este objetivo, parece que **en la práctica está dejando fuera a más gente de la que incluye**.

Los **derechos sociales son derechos y no se negocian**. Las **personas sin hogar son las más vulnerables** de las personas en exclusión, **y también las más invisibles**. Con este acto pretendemos evidenciar lo ridículo de la actuación de la administración con determinadas políticas excesivamente burocratizadas y que se convierten en un camino inaccesible para recorrerlo de forma autónoma y con éxito.

En el acto de calle, vinculamos cada uno de los lemas de estos años de campaña a uno o varios de los principios enumerados en la **Ley de Servicios Sociales de la CAPV** por entender que son el marco sobre el que se debe asentar el trabajo de la administración en Euskadi con las personas en situación de exclusión social, entre las que nos centraremos en las principales problemáticas de las **personas sin hogar**:

**2010 “Nadie sin derechos, nadie sin hogar” → Herramienta de valoración y los resultados de su aplicación.**

La ley de servicios sociales habla de la coordinación, cooperación entre administraciones e, incluso con el tercer sector como elementos fundamentales del Sistema de Servicios Sociales y habla, también, de la promoción de la participación ciudadana en la planificación y desarrollo de los Servicios Sociales.

**2011 “Todos somos ciudadanos” → Acceso a los servicios municipales, dispositivos de calidad y con continuidad.**

La ley de servicios sociales, plantea entre sus principios rectores, que la *Atención será personalizada e integral. También nos dice que el Sistema Vasco de Servicios Sociales deberá ofrecer una atención ajustada a las necesidades particulares de la persona y/o de la familia y deberá garantizar la continuidad e integralidad de la atención.*

**2012 “Son derechos, no regalos” → Acceso a las prestaciones sociales como derecho subjetivo.**

La ley de Servicios sociales en la CAPV habla de los principios de *Igualdad y equidad; y nos dice que los poderes públicos garantizarán el acceso a dichas prestaciones y servicios con arreglo a criterios de equidad, sin discriminación alguna*

**2013 “Nadie sin hogar, nadie sin salud” → Derecho a la atención sanitaria universalizada.**

Aunque las competencias en sanidad no son cosa de la ley de servicios sociales, Osakidetza dice que **TODAS** las personas van a tener garantizada la atención en la comunidad autónoma y que los servicios sociales son **UNIVERSALES**.

**2014 “Por una vivienda digna y adecuada” → Derecho a la vivienda.**

La Ley de Servicios Sociales habla, en sus principios de: *Responsabilidad pública. Dice que los poderes públicos garantizarán la disponibilidad y el acceso a las prestaciones y servicios regulados en el Catálogo de Prestaciones y Servicios del Sistema Vasco de Servicios Sociales.*

# ¿QUÉ PEDIMOS?:

---

## A las Administraciones públicas:

Las peticiones que hemos realizado en este quinquenio siguen siendo necesarias, hoy más que nunca. Además:

- **Son urgentes políticas sociales comprometidas que pongan a las personas en el centro, en especial a las personas sin hogar, y apuesten por la protección y garantía de acceso a derechos básicos** (salud, vivienda, protección social, etc.).
- **Es imprescindible un compromiso del conjunto de las Administraciones para recuperar la inversión en materia de protección social y servicios sociales.**
- Pedimos que la **‘Estrategia Nacional Integral para Personas Sin Hogar’ no quede en una mera declaración de intenciones, sino que tenga verdadero desarrollo e implementación.**

## A los medios de comunicación y las redes sociales:

- Que comuniquen desde **un enfoque sensible hacia las personas sin hogar**, huyendo de sensacionalismos y estigmas, visibilizando el fenómeno de la exclusión como un proceso complejo y manteniendo una mirada de derechos. Creemos en **un compromiso con las «buenas noticias»** y las situaciones de salida hacia adelante. #SonDerechosNoRegalos #NadieSinHogar

## A la ciudadanía y la sociedad entera:

- Mantenemos la petición de estos cinco años de Campaña: comprender que no hay derechos para nosotros y «sobras» para las personas que están en situación de sin hogar. **Somos todos seres humanos y, por tanto, titulares de derechos.** Es necesaria una mirada y actitud abierta al encuentro, libre de prejuicios.
- Una mayor **participación en organizaciones y movimientos sociales y ciudadanos**, de cara a modificar un modelo social que favorece el sostenimiento de la exclusión social.
- **Ser agentes que movilicemos esperanza**, lo que también supone denunciar, exigir y reclamar los derechos de las personas en situación de mayor exclusión, las personas sin hogar.



# MANIFIESTO:

---

*Después de CINCO AÑOS DE CAMPAÑA “NADIE SIN HOGAR” queremos alzar nuestra voz para decir a la sociedad, a los medios de comunicación y a las administraciones que:*

- La VIVIENDA es un lugar donde todas las personas encontramos cariño, amor, seguridad. Facilita el acceso a todos los demás ámbitos de la vida, por ello no entendemos que siga habiendo viviendas vacías mientras hay muchas personas en la calle o en recursos sociales: pedimos ampliar y mejorar el acceso a las viviendas sociales.
- La SALUD no es un negocio, es un derecho que tenemos todas las personas. Por ello, cuando se nos deniega la tarjeta sanitaria, se vulneran nuestros derechos. Cuando sí la tenemos pero residimos en la calle, se nos trata con prejuicios. La relación entre salud y vivienda es directa: mejorando las condiciones de la vivienda, mejora también la salud. +VIVIENDA = +SALUD
- QUEREMOS TRABAJAR: no queremos vivir de ayudas. Queremos desmitificar los tópicos y estereotipos asociados a personas en nuestra situación.
- Con el PADRÓN te haces visible “eres persona”, pero hay muchos ayuntamientos que no nos permiten empadronarnos, cuando éste es necesario para acceder a todo lo que supone ser ciudadano, como servicios sociales, tarjeta sanitaria, etc.
- No entendemos por qué tantas dificultades para percibir una RENTAS MÍNIMAS, sobre todo si te encuentras acogido en un centro u otro recurso social. Si no tenemos ingresos de ningún tipo ¿cómo podemos salir de esta situación?
- La PARTICIPACIÓN es formar parte de algo, es un valor, no un objetivo a conseguir. Tenemos miedos e inseguridades que nos dificultan la participación, por situaciones negativas que hemos vivido en la calle, por eso queremos participar como cualquier otra persona de nuestra sociedad.
- Queremos tener RELACIONES SOCIALES positivas, nacen diferentes tipos de vínculos que conseguirán que dejemos de sentirnos solos. No tener a nadie es tenerlo todo perdido, tenemos claro que NO SOMOS NADA SIN LAS DEMÁS PERSONAS.

**¡Porque ES POSIBLE que todas las personas tengan un HOGAR!**

**¡Porque es un COMPROMISO COMÚN de toda la ciudadanía!**

**¡¡¡NADIE SIN HOGAR!!!**



QUE TODAS  
LAS PERSONAS  
TIENGAN  
UN HOGAR  
ES UN  
COMPROMISO  
COMÚN

**PORQUE ES POSIBLE. NADIE SIN HOGAR**

29 DE NOVIEMBRE 2015  
CAMPAÑA DE PERSONAS SIN HOGAR

Organiza:



Entidades colaboradoras:

